

Euskal Aditzari Begira

Zenbait aditz bihurri

NOR eta NOR-NORK motakoak

NOR-NORI-NORK motakoak

NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK motakoak

Beste aditz bihurri batzuk

EAB 11

EUSKAL ADITZARI BEGIRA

gure aditza modu erakargarrian aurkezteko beste ahalegin bat da.
Gaurko bitarteko digitalak baliatuz,
euskal aditza pantailara eraman nahi dugu;
eta pantailatik, ikusle-ikaslearen hizkuntza-corpusera.

HELBURU NAGUSIA

HIZKUNTZA ZUZENTASUNEZ ERABILTZEA

«Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoei buruz hausnartzea, haren maila fonologiko, morfosintaktiko, lexiko-semanticoko eta testualetan, eta mezuen ekoizpen eta harrera baldintzei buruz, komunikazioko gizarte-testuinguruetan, berezko ekoizpenak arautzeko gaitasuna garatzeko helburuz».

«Hizkuntzaren irakaskuntzak *Euskal hizkuntza eta literatura* arloaren mugak gainditzen ditu, hizkuntza ia curriculum osoan irakatsitako ikaskuntza guztien euskarri delako, eta eskolako ikaskuntza-prozesuak, neurri handi batean, hizkuntza-gaitasunaren garapenaren mende daudelako».

Oinarrizko curriculum-diseinua

EUSKAL ADITZARI BEGIRA

Zenbait aditz bihurri

AURKIBIDEA

NOR eta NOR-NORK motakoak.....	3
NOR-NORI-NORK motakoak.....	8
NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK motakoak.....	11
Beste aditz bihurri batzuk.....	14

IZENA:.....MAILA:.....

SARTU / ATERA / ALTXATU / HIL

Sartu, atera, altxatu eta hil aditzak, batzuetan, *izan* aditz laguntzailearekin erabiltzen ditugu eta, beste batzuetan, *edunekin*.

Batekin edo bestearekin erabili, esanahia erabat aldatzen da.

Osatu esaldiak, adibideetan bezala.

.....Kristina bulegoan sartu da.Kristinak Susana bulegoan sartu du.
.....atera dira.atera dute.
.....altxatu zara.altxatu duzu.
.....hil zen.hil zuten.
.....sartu zitzaion.sartu zioten.
.....altxatu ziren.altxatu zuten.

IRTEN / IGO / BAZKALDU / AFALDU

Irtten aditza *izan* aditz laguntzailearekin erabili behar da.

KOLDO	—Noiz irtengo zara bulegotik?
SUSANA	—Beti irteten naiz zazpitan. Zergatik galdetzen duzu?
KOLDO	—Kristina bederatzietan irtengo da bileratik eta ni hemen nago, kalean, zer egin ez dakidala.
SUSANA	—Aspertuta zaude, ikusten dut, baina ez naiz irtengo lehenago, ezin dut.

Igo, aditzak, normalean, *izan* laguntzailea hartzen du.

Hori bai, *jaso* edo *goratu* esanahiaz erabiltzen denean, *edun* hartzen du.

KRISTINA	—Noraino igo zarete ?
XABIER	—Gailurreraino igo gara .
KRISTINA	—Eta motxilak gailurreraino igo dituzue ?
XABIER	—Bai, neska. Motxilak ere gailurreraino igo ditugu . Ea soldata ere igotzen didaten .

Iparraldean, *Bazkaldu* eta *afaldu* izanekin erabiltzen dira eta *edunekin* Hegoaldean .

XABIER	—Bihar Donostiara noa, bertan bazkalduko naiz .
KRISTINA	—Donostiara? Bazkal zaitetz Martinen etxean; eska txabiak.
XABIER	—Bihar Donostiara noa, bertan bazkalduko dut .
KRISTINA	—Donostiara? Bazkal ezazu Martinen etxean; eskatu txabiak.

IZENA:.....MAILA:.....

BORROKATU, BORROKA EGIN, BORROKAN EGIN

*Borrokatu, izan laguntzailearekin erabili behar da.
Borroka egin eta borrokan egin, berriz, edun laguntzailearekin.*

- KRISTINA** –Gaur Gorkarekin **borrokatu naiz**. Nire onetik atera nau eta gordeta neuzkan guztiak esan dizkiot.
- KOLDO** –Guzti-guztiak? Asko ezin eduki, hilabete bat ez da pasa eta **borrokan egin zenutela** azkenekoz.
- XABIER** –Egia da. Julenek eta zuk **borroka egiten duzuela** diozu behin eta berriro. Ez al da izango halako maitasun ezkuturen bat gordetzen duzuela?

LOAK HARTU, LO HARTU, LOKARTU

*Loak hartu eta lo hartu, edun laguntzailearekin erabiltzen dira;
lokartu izan laguntzailearekin.*

- KOLDO** –Gaur goizean berandu iritsi naiz postetxera **loak hartu nauelako**.
- XABIER** –Nik ere **lo hartu dut**, baina ez neukan inora joan beharrik.
- KRISTINA** –Ez da harrizkeoa. Atzo berandu arte jardun genuen. Ni ere bazkalostean **lokartu egin naiz**.

Loak hartu aldaera erabiltzen denean, ohartuko zinetenez, loak perpausaren subjektua da.

- Hor etzaten bazara, **loak hartuko zaitu**. (loak zu) -gero-
..... (loak zuek) -lehen-
..... (loak haiek) -lehen-

Lo hartu aldaeran, berriz, lo objektua da.

- Hor etzaten bazara, **lo hartuko duzu**. (zuk lo) -gero-
..... (haiek lo) -lehen-
..... (guk lo) -gero-

FALTA IZAN

*Falta izan aditza bietara erabil badaiteke ere, alde handiz,
izan laguntzailearekin erabiltzen da gehien.*

- KRISTINA** —Zerbait **falta al zaizu?**
- SUSANA** —**Faltako ez zait** ba? Hori galdera. Ezer **ez balitzait faltako** ez nintzateke zerbaiten bila ibiliko.
- KRISTINA** —Zer da, ba, **falta zaizun** hori? Txostenen bat, edo?
- SUSANA** —Belarritakoa **falta zait**.
- KRISTINA** —Belarritakoa. Uste nuen tintaren bila zenbiltzala. Atzo inprimagailuari ipintzeko tinta **falta zen**. Dena dela, dagoeneko **ez da falta**. Nik ekarri baitut eta ipini inprimagailuari.
- SUSANA** —Ene belarritakoa non arraio ote da. Ezin dut proiektuaren aurkezpena belarritako hori gabe.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi: *Euskal gramatika osoa*, Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari: *Gramatika gaitasuna lantzen*, Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA: *Euskaltzaindiaren arauak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1994.

Orri elektronikoa

www.hiru.com

Euskal Aditzari Begira

Aditz multzoaren egitura

Adizki jokatuqabeak -I-

Adizki jokatuqabeak -II-

Adizki jokatuqabeak -III-

Adizki jokatuqabeak -IV-

Adizki jokatuak -I-

Adizki jokatuak -II-

Adizki jokatuak -III-

Aqintera, baldintza eta aditz arazleak

Aditz-lokuzioak

Zenbait aditz bihurri

Ekoizlea:



Getaria, 18-behea

01010-Gasteiz

Tel-faxa: 945200608

artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

www.artez-bai.com

LG.- VI- 471 / 08

Ikasmaterial honek
Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du.

2009/12/18